

## 2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

*Bezeroak edozein negozio ereduaren bihotza dira eta horregatik beharizanak hobeto asetzeko bezeroak ezaugarri komunak arabera antolatuko ditugu.*

- **Zein da zure bezeroa?**

Gure bezeroa, bertako produktu garbi eta ekologiko bat kontsumitu nahi duen pertsona da. Pertsonak nahiz saltokiak izan ahalko lirateke gure bezero, beraien kontsumo pribaturako edo gure produktua beraien berririko saltzeko, gu jakinaren gainean egon bitartean.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Gure bezero guztiek antzeko ezaugarriak dituzte, hau da, bertako produktuak kontsumitzearen alde egiten dute eta nahiago dute kilometro 0-ko produktu ekologikoa eta osasuntsu bat kontsumitzea. Merkatu segmentazio barruan mota anitzeko bezeroak dira, familietatik hasita, saltokietaraino. Laburtzen, gure bezeroak dibertsifikatuak badira ere, bezero guztien xedea berdina da. Kilometro zeroeko produktu ekologikoaz baliatzea.

